

Narratiba



OBABAKOAK
Bernardo Atxaga

erein

Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko



abantada 'bultzada, abiada'	«...egia esateko ni ere ikaraz egon nintzen abantara hartara ohitu artean...»	(113)
abistu egin 'txistu egin'	«...bere buru gainetik pasatzen ziren tximista bezala, abistu eginez , ezta?»	(117)
abjektu 'mespretxagarria'	«Bitartean, ogibideak ez dio behin ere abjektua izan dadin eskatzen...»	(158)
abre 'aberea, basatia'	«...baso abre , zakar eta sarri batean ikusi nuela neure burua.»	(329)
adolezente 'nerabea'	«...Dalmau Carles entziklopediari aurre egin behar izaten zioten hamalau urtetako adolezenteek .»	(41)
ahaire 'doinua'	« Ahaire zaharrak jo zituen arrabitatekin...»	(274)
ahi eginda 'birrinduta'	«...jana, ahi eginda , bere hortz nikotinatuen artean bueltaka...»	(142)
aise 'erraz'	«Beste guztiak, sinadura barne, aisa konprenitzeko moduan irau du.»	(20)
aitzin-solas 'hitzaurrea, prologoa'	«Jada bigarren orrialdean, eta aitzin-solas modura oraindik...»	(10)
ajatu 'gastatu, maiztu'	«Letrak, eta baita kolorea bera ere, ajatuak zeuden denboraren poderioz.»	(97)
aldarte 'egoera'	«Afaldu eta gero, eta aldarte berri hark eraginda...»	(54)
algara 'zarata'	«...baina hitzik ez zuen esaten sei urterekin ere, algara besterik ez zuen egiten...»	(33)
amini bat 'pittin bat, apurtxo bat'	«...esan zuen neskak, eta amini bat jiratu zuen aurpegia.»	(88)
antiaju 'betaurrekoa, anteojo'	«...bere kristal sendotako antiajuen atzean.»	(155)
antsi 'intziria'	«...ama! ama! ...ama! esaten cian basurdearen abuac, amari deitzen cichion, eta antsi eguiten cian, ez daquic nola...»	(22)
antzerra 'antzarra'	«Baina, antzerra jokoko sujet hari gertatu bezala, aurrera neguak eta udak...»	(201)
apartenitu 'partaide izan' (?)	«Laguna eta biok hirugarren talde bati apartenitzen genion.»	(259)
apika 'agian, beharbada, ausaz'	«Jesus-en lagunak ikastetxekoa, apika .»	(9)
apopilo 'ostatutakoa, inkilinoa'	«...ostatu berean apopilo egoten zen Matias gracia zuen agure batec bacarric.»	(12)
ardailatsu 'eztabaidazalea, sesiotsua'	«...Tassis bat erakutsi zidaten, ardailatsua beti, nekagarria askotan...»	(179)
arrapostu 'erantzun, ihardetsi'	«... arrapostu zion maistrak atea erdi itxiz.»	(67)
arren 'mesedez'	«...eta eskatuz, arren , hainbeste esan ez zezan...»	(100)
arro 'harana, ibarra'	«Basoa, eta baso hartaraino – arro bat osatuz– gurutzatzera zihoazen bi "paramo" edo mendi antzuak...»	(154)
arrubio 'narrasti mota'	«...compañia egoquitaz eduquico bait cituen ango arrubio eta lupuac.»	(21)
artean 'oraindik' (Iragana)	«... artean hamalau urte besterik ez nituen.»	(97)



artetsu 'trebea, antzatsua'	«...berriro osatzen jakingo ez dugun pakete artetsu bat desegitearen pareko zerbait.»	(103)
ase 'bete-bete egin'	«...jan eta jan, eta ez zutela atzerakorik egiten ondo ase arte.»	(203)
aterrune 'ateri ueña, euri gabeko ueña'	«...eta arratsaldeko aterruneak arrasto urdinez betetzen zuen zerua.»	(92)
atetila 'atetxoa'	«Mugatseko morroi tikiari estufako atetilari begira joaten zitzaion goiza...»	(51)
auskalo 'batek daki'	«...edo ez zuela betarik hartzen karta egiteko, edo auskalo zer...»	(28)
bakandu 'soildu, urritu, gutxitu'	«...eta egunean baino egunean zeuden mitxeletak bakanduago ...»	(43)
baltsatu 'ur putzuz bete'	«...gehitzen baitzitzaion bide lokaztu eta baltsatuen nekeari.»	(323)
barreiduri 'barre itxura, barre imintzua'	«Baina sumatzen nuen, bere barreiduria ikusita, ondorenean adieraziko zidana.»	(24)
barren 'eremua'	« Barren horietan ez dugu zaldirik jaten, señorita", asmatu zuen.»	(51)
basitu 'bainatu, blaitu'	«Zafladan bota zioten ura aurpegira, eta zipriztinek sukalde guztia basitu zuten.»	(125)
batimedu 'tramankulua, trastea (?)'	«Zinez hitz eginda, batimedu hura nolakoa zen jakiteko zorutzen nengoela esan beharko nuke...»	(77)
batimendu 'beirazko egitura'	«...eguzkiaren horitasuna batimendu nagusien kristaletan.»	(318)
bedαιο 'ematen du'	«Aurreneko orrialdean, irakurri ahal den apurraren arabera bedαιο , erretoreak bere pesadunbrea...»	(10)
begiratu 'zaindu, babestu, jagon'	«...muskerragandik begiratzeko bi modu bazeudela gaineratzen ziguten.»	(203)
begirazo 'adikunea, begirada gaiztoa'	«...eta sekulako begirazoak botatzen zizkigun sukaldean sartzen ginen bakoitzean...»	(28)
belatze 'belardia'	«San Jose lorechoac aspaldidanic oriztatzen cizquiaten belatzeac .»	(18)
beta 'denbora'	«Baña ez nian erreflexio ori eguiteco betaric izan.»	(17)
betizu 'basatia, hezikaitza'	«...baina ez zirudien, jada, Obabako mutil betizu bat.»	(208)
betortz 'letagina'	«...aitona haserretu egin zen oso, eta betortzak kenduko zizkiola agindu zion builaka...»	(118)
bide 'dirudienez, antza'	«Nire hitzegiteko modua bitxia egin bide zitzaion zuzendariari.»	(129)
bidezidor 'bidexka, bidetxoa'	« Bidezidorretan sortutako errekatxoak kizkurtu egiten ziren harri txintzarrekin egokitzean.»	(75)
bisaia 'aurpegiera, keinua'	«Igotzen ari denaren aitzinean, berriz, duda bisaia jarri eta "alferrik da" ematen dute aditzera.»	(334)
biz behin 'birik batean, bitik batean'	«...egun biz behin mozkortzen zirelarik.»	(137)
bizarre 'arraroa'	«Gure arteko elkarrizketa are eta " bizarre " eta bitxiagoa izan zitekeela erakutsiz...»	(156)
bozkario 'alaitasuna, poza'	«Ez zen inoren bozkarioa ernetzeko moduko ikusmira...»	(70)



briztada 'distira'	«Ostarteetan azalduz, eguzkiak bristadak ateratzen zizkien gure bizikleten manillarrei.»	(91)
buhames 'buhamea, ijitoa'	«Denbora buhames bat edo, hala nahi bada, denbora erratua, jeneralean ametsetan bakarrik agertzen zaiguna.»	(104)
dandai 'zutik, zutunik'	«... dandai jarri ginenerako, aldamenean sentitu izan guenituen arnasac.»	(10)
demanda 'eskaria, eskaera'	«...eta nik gutxien espero nuen demanda egiten zidaten: abiatzeko mesedez beraiekin...»	(75)
dinatasun 'duintasuna, dignitatea'	«...hirurogei urterekin ere dinatasunaren kontrako iruditzen zitzaion bazkaria prestatzea edo gelak eskobatzeta.»	(141)
diosala 'agurra'	«Baina ez zion diosalari erantzun.»	(46)
dirautso 'diotsa'	«...bere amak dirautso ixi ene semie.»	(59)
doi 'ozta, juxtu'	«...Antonio gure anaia zaharrenak hamazazpi urte doi zituela...»	(27)
edegi 'ireki, zabaldu'	« Edegi dire zeruen ate diamantezkoak...»	(59)
egosgogor 'burugogorra, "terkoa"	«Baina egoskorra zen, ez zuen erabakirik hautsi nahi.»	(43)
egun 'gaur'	«...hala dio behintzat egun erretore denak...»	(9)
eleketa 'hizketa, berbeta'	«...kiskaltzen ari denaren eleketa zentzugabeaz.»	(325)
endredatua 'nahasia, lotua'	«...eta une bereziak bilatzen ditu beraietan endredatua gelditzeko.»	(74)
erasana 'hondatua, alferrikaldua'	«Seigarren orrialdea nahiko erasana dago.»	(15)
erbinude 'ogigaztaia' (Animalia mota)	«Sugeak txoriarekin, erbinudeak untxiarekin...»	(148)
erdiragarri 'urragarria'	«...erantzungo nichioqueen benetan erdiragarri citzaidan, eta zaidan, galdera ari...»	(21)
erpin 'ertza'	«...huntzez estalia lurretik teilatuaren erpineraino ...»	(73)
erran 'esaera, atsotitza'	«... erran zaharrekin ziprizturiko ezezkortasun bat.»	(146)
errieta eman 'deiadar egin, gogor egin'	«...petralduta dabilen umeari errieta eman ez besteak.»	(163)
erronka 'desafioa, eztabaida'	«...eta izaten omen zen orduan erronka eta sesio franko...»	(26)
estreina 'estreinakoz, lehenengo'	«...discusioan asi omen ituen, agurearequin estreña , elcarren artean guero...»	(15)
exempli gratia 'esate baterako, adibidez'	«Falta zaizquiguc, exempli gratia , beiñ (...) aldamenean sentitu izan guenituen arnasac.»	(10)
ez aditua egin 'ez entzutearena, gorrarena egin'	«Baina nik ez aditua egin nuen.»	(91)
ezkaratz 'sukaldea edo sarrerako gela'	«...ardo eta olio zahagiz betetako ezkaratza zeharkatu ondoren...»	(41)
ezpainenako soinu 'musu soinua, filarmonika'	«...eta ezpainenako soinuz jotako pieza bat entzuten zen abistu eta algara artean.»	(53)



fiertasun 'kemena, adorea'	«...miresgarriztat jo genuen Guillaume-ren fiertasuna .»	(327)
fite 'arineketa, arin'	«...ondoren fite batean (...) istorioa entzuteagatik eskerrak eman...»	(257)
frantziberde 'hirusta, sekula belarra' (Belar)	«...bada frantziberde mordo bat jan zigun, eta aitona haserretu egin zen oso...»	(118)
frufruketa 'aireari eragin hotsa ateraz'	«...pasiluan aurrera bera ere, jazki luzeekin frufruketa sortuz.»	(84)
ganpazu 'mantela'	«...harri horrek mahai baten itxura dauka, eta aitonak ganpazua zabaltzen zuen...»	(119)
garo 'iratzea, ira'	«...orduantxe bertan buru bat ikusi nuen garo artean...»	(39)
gose 'gositya, goseak hilik dagoena'	«Jende gosea duzu hori, eta motza...»	(332)
graka 'ugerra, lohikeria'	«...edo bere sukalde grakaz estalian eseri erazten ninduenen.»	(142)
gupitu 'gupidatu, errukitu, pena hartu'	«Berorri ez al da gupitzen , ez al du berorrec penic artzen?»	(19)
haga 'langa'	«Buru txuriakiko haga hark gizon interesgarria zirudien...»	(216)
haizematu 'haizea eman' (?)	«...erantzun nion mezatako liburu bat haizematu ondoren.»	(23)
harramazka 'atzaparkada, erpakada'	«...txikituta zeharo eta harramazkaz betea, otso batek harrapatu izan balu bezala...»	(38)
harri txintzar 'harri-koskoak, harritxo solteak'	«Bidexidorrean sortutako errekatxoak kizkurtu egiten ziren harri txintzarrekin egokitzean.»	(75)
hastapen 'hasiera'	«...munduko gauza guztiak hastapen -hastapenetik zeudela Jainkoaren gogoan...»	(177)
haurren berdina 'haurrak bezalakoa'	« Haurren berdina horretan, uste zuen begiak itxi eta ezer ikusi gabe geldituz gero...»	(144)
hauster 'errautsa'	«Baina momentu guzti horiek, hauster izpi bihurturik zeutzan bere gordelekuan.»	(70)
herrestan 'narras, arrastaka'	«...urak haraino herrestan eramane...»	(82)
hinki-hanka 'itzulinguruka'	«"Mesedez! Nirekin ez ibili hinki-hankaz ! Garbi hitzegin!"»	(175)
hutsal 'baliogabea'	«...solas hutsalaren gainetik...»	(163)
i erorri 'hi heu'	«Eta i erorri ene lagun maitea, urrun ago...»	(10)
idorreria 'asperdura'	«Esan ohi denez, ikastetxeetan aiseago ezagutzen da idorreria mentura baino»	(71)
igarri 'antzeman'	«...ortzimugako errainu huts batetik igarriz zein karabana den datorrena.»	(158)
ihar 'hezurtsua, argala'	«Beti bezain ihar segitzen zuen, baina ez zirudien, jada, Obabako mutil betizu bat.»	(208)
ilaun 'zuzia, suzko tortxa'	« Ilauna zeharo erre eta xahutzen zen unean hilko zela Melagro.»	(275)
indarge 'indarrak gabe, ahul, makal'	«Bai chit zorte zacarra duc bacarric dagoenarena, eta are tamalgarriagoa (...) ecin alchaz, indargue , dabillenarena.»	(11)



inpentsan 'ustekabea'	«Arratsalde hartan herriko lagunak bila etorriko zitzaizkidan etxera, inpentsan... »	(75)
irauli 'bira edo porrot egiteko puntuan	«Hori zela eta (...) iraultzeko zorian bezala bizi zen.»	(90)
ireltxo 'izpia, distira'	«...galdu duen askatasunaren alde mintzatzen diren ireltxoak .»	(163)
irule 'haria egiten, iruten aritzen dena	«...beraiek zirela, gainera, ordura arteko gertaeraren antolatzaile eta iruleak ...»	(270)
itxitura 'kaiola antzeko gordetegiak'	«...nik ez dut sekula ikusi hainbeste zaldi batera, eta itxituretan zeuden...»	(120)
jarri 'moldatu, egokitu'	«Azken batean, pertsona argiak jarri egiten ziren, edozertara...»	(80)
kaier 'koaderno'	«Hausterra, hausterraren gainean, horixe besterik ez ziren hamaika kaier haiek.»	(70)
kamuts 'eskasa, kaxkarra'	«...erretratua hizlari kamutsa iruditzen zitzaidan.»	(202)
kemen 'adorea, ausardia'	«...hasieran zuen kemen berberaz.»	(94)
kilimaku 'kili-kilia, kilima'	«...baina mina, azkenean, kilimaku bihurtzen zitzaion.»	(298)
kinketako 'euskarria'	«...gurpilek ukitzen dutenerako oihuztatu egiten ditu kinketakoak .»	(113)
kio 'oihutxo'	«...ahotsa –andre batena bezain mehea betiere– pitzatu zitzaion, eta kio bat atera.»	(171)
kirika 'begiratu, zelatatzeko'	«...galdetu zion bere buruari, zisneak gogoan, parkerantz kirika eginez.»	(80)
koska 'konkorra, irtenunea'	«...bi gizon gazte atariko koskan eserita.»	(134)
koskortu 'hazi'	«...eta minazuloak berak ere erdi ezkutatuta zeuden ni koskortu nintzenerako...»	(27)
kurrinka 'txerrien oihu bizia'	«Izugarrizco currincac eguñez joan omen uen ordura arte baque-baquean ibillitaco animalia.»	(14)
kuxkurtu 'kiribildu, bildu'	«...handik astebetara ama txito bat bezala kuxkurtu zen sukalde bazterrean...»	(29)
kuzkuzeatu 'besteak jakiten aritu'	«...paseatzailea Menscher-en bizitzan kuskuseatzen hasiko litzateke.»	(280)
lahar 'sastraka, belartzarra'	«...eta minazuloak berak ere erdi ezkutatuta zeuden ni koskortu nintzenerako, sasiz eta laharrez zikinduak.»	(27)
lain 'adina, beste'	«...basurdearen odol arrastoari seguica abiatzeko lain adore eman cichian Jaincoac.»	(21)
lamada 'bero handia, itogarria'	«...eguraldia izan zen –egun hartan egiten zuen lamara – itzulbideko gai bakarra.»	(367)
lanturos 'malenkoniatsu, tristuraz'	«...cer suertatzen zaio Lizardi zaarrari olaiñ lanturos mintzatzeco...»	(11)
lanturuka 'aieneka, erostaka'	«...eta beti lanturuka ibiltzen zen...»	(36)
laratze 'tximiniako katea'	«...bere semearen zoria guztiz lotuta zegoela laratzean erretzen ari zen ilaunarekin.»	(275)
larderia 'izua, beldurra'	«...alegrantzia gehiegizko batetik halaber gehiegizkoa den larderia batean jausia...»	(162)



lehian 'borrokan, norgehiagoka'	«Sukaldeko leihoaz harantz, ilargia lehian zebilen hodeien artean...»	(59)
lista 'espartuzko sokatxo'	«"Ez dira masta batean igota, baizen mastari lista batez lotuta.»	(333)
lupu 'narrasti mota'	«...compañia egoquitaz eduquico bait cituen ango marrubio eta lupuac .»	(21)
lurmendu 'urtu'	«Elurak lurmentzen ari zuen ordutik ordura...»	(192)
mailur 'erredura, mina'	«...ez, ordea, une haietan nozitzen zituen mailurrak lehenago aipatu gabe.»	(11)
makakorro 'orroea, marruma'	«Echecoac garrasica, macacorro batean, asi ituen ortaraco gauza izan zirenean...»	(16)
makula 'zikina, mantxa'	«...orrialdeak makula gabe egon zitezen gustatzen zitzaion.»	(72)
mantxotu 'moteldu, astirotu'	«Trena mantxotu egiten da zubi metalikoa zeharkatzerakoan.»	(114)
marrantatu 'eztula sortu'	«...eta eztarria marrantatu eguin cichaioquean.»	(20)
marru 'ulua, orroea'	«...eta motorraren marru geroz ahulagoa abere baten lanturua bailitzen barreiatzen da airean.»	(113)
masiatzaile 'gaizki esaka aritzen dena'	«...Werfell jaunak estutu egiten zituen hortzak Obabako masiatzaileez pentsatzearekin bakarrik.»	(76)
mentura 'zoriona'	«Esan ohi denez, ikastetxeetan aiseago ezagutzen da idorreria mentura baino»	(71)
mikatz 'minkaitza, mingotsa, samina'	«...kontseilu edota gupida bila letorkeen gizon erori baten zapore betiere mikatz a.»	(10)
mikaztu 'minkaitz bilakatu, galdu'	«Berriro ere, bere jazkiei zerien usaina sentitzen nuen, esne mikaztuarena bezalakoa.»	(87)
mingots 'samina, tristura'	«...ezpainetan idatzitako azken hitzek eragindako mingotsa ...»	(71)
mintz 'azala, geruza fina'	«"Etorri nintzenean ere holaxe zeuden soroak, izotzaren mintz txuriarekin"»	(45)
mira 'arduraz'	«...ez baitzen hura bere benetako etxea, eta mira bilatzen baitzuen haren lau horma artean sartuta...»	(42)
mitxigu 'txori mota'	«...korrika atzera eta aurrera, mitxigui segika eta zaunka eginez...»	(117)
mortu 'indargea, ahula'	«...putzuak dauzka nonahi, eta huriaren argi mortuak multiplikatu egiten dira ur zikinean...»	(112)
munto 'muna, tontorra'	«...etorri eta horko munto batean eseri gintuan, ikusten duk?»	(265)
murru 'harresi'	«...elizari amaica vuelta eman ezquero murrutic zintzilika dagoen gargola cantatzen asico zaiela uste baitute...»	(12)
musu 'aho ingurua, ezpaina'	«...tunikak gizonetzkoetan, errezelak andrezkoen musuak estaliz...»	(281)
muturtu 'aurpegi txarra jarri,haserretu'	«... muturtu zitzaion maistra.»	(64)
nozitu 'sentitu'	«...ez, ordea, une haietan nozitzen zituen mailurrak lehenago aipatu gabe.»	(11)
ohoinkeria 'lapurreta'	«...ez da batere on ohoinkeriaren kontu hori.»	(335)



oihuztatu 'oihutan, irrintzika ipini'	«...gurpilek ukitzen dutenerako oihuztatu egiten ditu kinketakoak.»	(113)
ondoez 'gorputzaldi txarra, mina'	«Ez zuen konprenitzen nire bat-bateko ondoeza .»	(184)
orin 'orbaina, mantxa'	«...aurpeguia ichusitzen cion oriñ batez inguratua cichaucan beguitarte.»	(13)
oroz lehen 'lehen-lehenik, ezer baino lehen'	«Eta, oroz lehen , zapal ezazu –ale hop!– hirugarren parentesia...»	(287)
osin 'asuna, belarki mota'	«...egunean baino egunean zeuden mitxeletak bakanduago; soilik osinez elikatzen diren Vanessak aurki zitezkeen...»	(43)
ozkaka 'hozka edo haginka egiten'	«...eta ateari colpeca eta ozcaca egon uen ia ordu batez.»	(16)
peskizan eduki 'kezkatu, arduraturik'	« Peskiza ederrean edukiko dituk etxeok!»	(119)
petralduta ibili 'okerkeriatan aritu'	«... petralduta dabilen umeari errieta emanez besteak.»	(163)
petrikilo 'medikua'	«Baina halere petrikiloa ekarri genuen...»	(29)
pisuago 'astunago'	«Lehenagoko trasteak oraingoak baino pisuagoak izaten ziren.»	(24)
pitzatu 'kraskatu, hautsi'	«...ahotsa pitzatu zitzaiolako...»	(183)
plaia 'plagiatzea'	«"Nire iduriz, plaiak abantaila anhitz sorze hutsezko lanaren aldean.»	(335)
sail 'eremua'	«...esate baterako belaunikatu egiten zen alpapa sailean ...»	(118)
sakana 'harana, bailara'	«...alderantziz jarritaco piramidearen forma daucan sakana ceoc...»	(21)
sapa 'landareen izerdia'	«Ematen zuen ahaztuta zeudela beren zainetatik, une hartan, korrika ari zen sapa berriaz.»	(76)
sarri 'zarratu, itxi'	«...baso abre, zakar eta sarri batean ikusi nuen neure burua.»	(329)
sasiko 'sasikumea, ezkontzaz kanpoko'	«Eche propioric gabecoa celaco, alde batetik, sasicoa , emen erabiltzen den icenez esateco.»	(12)
sasikun 'sasikoa, sasikumea' (?)	«...egun osoa kanpamenduan egiten zuen barrabas bizi eta sasikuna zen...»	(326)
seta 'tema, kasketaldia'	«...eta ez ote bere indarra eta seta costaldeco lurrari (...) ostutzen dizquion ichasoarenac?»	(11)
simaur 'nazkagarria, zikina, jendaila'	«...Jainkoaren kastigua ere bazela halako jende simaurraren artean gertatu izana...»	(28)
sinu 'imintzioa'	«Morroiak sinu bat egin zuen sudur eta ezpaineekin.»	(51)
sobera urduri 'urduriegi'	«Ohiturak edo izakera sobera urduri batek bihurrituriko grafia barrokoak...»	(9)
subildu 'beheko suan erre. enbor sendoa'	«Bakarrik zegoen sala hutsean, subilduaren ondoan eserita.»	(324)
sumakizun 'arrazoia, aitzakia' (?)	«...bada orain sumakizun bat hari buruz gogoetak egin ahal izateko.»	(139)
suspertu 'indarberritu, biztu'	«Igande arratsalde hartako gertarak bere sorterriarekiko oroitzapenak suspertu egiten zizkiola iruditu zitzaidan.»	(96)



talaian 'zelatan, adi'	«...auzune guztia ezin egon daitekeela nik egin dezakedanaren talaian .»	(61)
temosu 'tematia, iraunkorra'	«Neguaz hitz egingo diat. Bada, paraje honetan oso hotza eta zakarra duk, eta oso temosua .»	(54)
tropoiloan 'tropelean'	«...lagun guztiok kalera egin genuen, tropoiloan , elkarri bultzaka...»	(82)
tuntun mamantona 'pepelo hutsa'	«... tuntun mamantona batzuk gure ustetan, paretik pasatzerakoan diosalarik egiten ere ez zekitenak.»	(199)
tuntundu 'lelotu, kokolotu, papautu'	«Bestela tuntundu egingo naiz Albania hotz honetan.»	(46)
txalkor 'okerdura'	«...ondo osatua zegoen, txalkorrik gabe, berna zuzen-zuzenekin.»	(170)
txandaldu 'ezindua' (?)	«...besoa istripu batean txandaldua zuen arren...»	(148)
txapaka egin 'bostekoa eman'	«Mahai gainean utzi zuen, eta txapaka egin zidan bizkarrean.»	(97)
txapligu 'suziria, bolandera'	«Lainoari txapligu hotsa jarraitu zitzaion.»	(221)
txarrantxa 'arantzzdun alanbrea'	«Txabola elizatzean zegoen, txarrantxaz hesitutako belatze baten erdian.»	(365)
txirikorda 'trentza'	«...deitu zuen txikordaz orrazten zen neskato batek.»	(52)
txirraia 'txirria, txorrotada'	«...ura teilatu erretenetara biltzen baitzen, eta txalo txikitako oihartzuna sortzen baitzuen –handik txirraian eroriz–...»	(132)
txurten 'kirtena'	«Puinaldea (...) zinez zen arabiarra, damaskinatua txurtenean eta burdina luzekoa.»	(283)
umeteria 'haurrak oro har, multzoa'	«Eguizac contu orain, gure umeteriaren biotz shamurretan eta (...) gorde izaten duten iñucentziaz.»	(12)
uxar egin 'muturka egin lurrean'	«Sarteric ez zeucala icasi zuenean, ushar eguiten ibilli uan baratzen...»	(16)
Vae soli! 'Ai gizon bakarraren!'	«...Eclesiastés-eco oiu ura gogoan: Vae soli! Bai, chit zorte zacarraduc bacarric dagoenarena...»	(11)
vox populi dixit 'denen ahotan dago'	«...bere sortzaille ezcutuocoac bidaltzen cituen duro cillarrezcoen truc, vox populi dixit ...»	(12)
xahutu 'ahitu, agortu'	«Zertarako xahutu denbora, bere aitak bezala, libururik liburu...»	(80)
xarpa 'trapua'	«...eta bi xarpa zituen belarrietan bi botoi jarri ahal izateko.»	(32)
xor 'xoroa, zoroa, eroa'	«Ikara xor eta zehaztu gabeko bat...»	(290)
zahagi 'zahatoa, larruzko ontzia'	«...ardo eta olio zahagiz betetako ezkaratza zeharkatu ondoren...»	(41)
zaildu 'gogortu'	«...eta pentsamendu horrekin eragin zien bere berna zailduei .»	(48)
zain 'odolbidea'	«Ematen zuen ahaztuta zeudela beren zainetatik ...»	(76)
zakal 'zaharkitu'	«...labana zeraman galtza zakalen sakelan.»	(209)
zakar 'gogorra'	«Bai, chit zorte zacarra duc bacarric dagoenarena...»	(11)



zaputz 'izua, beldurra'	«...baña ez dezaqueala pentsa bere iesac gu denoc, zaputzaren poderioz edo, eguin oi ditugun moducoac zirenic...»	(11)
zapuztu 'itsusitu'	«...eta etxe galant hura zapuztu egin zen segituan...»	(27)
zernolakoak 'aldikadak'	«...baña, esaten diat, Javierren cer nolakoak ez ituen arruntak.»	(12)
zerrauts 'serrina'	«...eta kontinente horiek zerrautsetan egindako marrazkien bitartez erakusten dizkiet umeei.»	(44)
zintki 'zinez, egiazki, benetan'	«"Seme! Ihardets iezadak zintki! "»	(335)
zipotz 'tematia, azpikeriazkoa'	«Edo ez zen hori izan, agian beste helburu malizios eta zipotzago bat izan zuen...»	(76)
zirtzilatu 'hautsi, birrindu'	«...chori gaisoa chirchillatua zichoan nic ecer esateco beta artu baño leen.»	(14)
zornetsu 'gatxez (pus) betea'	«Txinaurri gorri haiek kozka egindako lekuetan ulcer zornetsuak sortzen zirela...»	(247)
zumitz 'zur mota'	«Hogei bat emakume ikusi nituen orduan, zumitzezko aulkietan eserita.»	(85)
zuntoi 'zutabea'	«Egurrezko kaiaren zuntoi artetik sartu zen uretara...»	(372)